

HERRENAREN

MENDEKUA

Xabier Amuriza

Pablo Barrio idazle eta antzerkigile estimatuari.
Nire «Orain ezin naiz hil» interneteko eleberritik
«Ahabdul herrenaren mendekua»
pasartearen antzerkirako lehen moldaketa egin zuenari.
Esker onez eta maitasunez.

AURKIBIDEA

Pertsonaiak	2
Lehen ekitaldia	3
Bigarren ekitaldia	7
Hirugarren ekitaldia	9
Laugarren ekitaldia	11
Bosgarren ekitaldia	13
Seigarren ekitaldia	16
Zazpigarren ekitaldia	20
Zortzigarren ekitaldia	23
Bederatzigarren ekitaldia	25

PERTSONAIAK

DULTZIN: Gizonezko herren adintsua.

LUGAN: Apaizgai mutil gaztea.

AMA: Apaizgaiaren ama. Pasarte labur bat.

APAIZA: Pasarte oso labur bat.

LEHEN EKITALDIA

1

Egunsentia. Ilun samar oraindik, apenas ikusten den ezer. Aldian behin, auhen-marru-birao, amorru-minezko nahasketa entzuten da, «Hmmmrrggg... Kabendiooss...! Psssjjrrr... Puta pilarissima...!». Lujan apaizgai mutil gaztea Zelaborda izeneko bordara iristen da. Dultzin ezizeneko gizon bat topatzen du bertan, irazko zoruan etzanda.

- Lujan: Dultzin! Zertan zaude hor?
- Dultzin: Hiltzen!
- Lujan: Hiltzen nola?
- Dultzin: Ez zekiat. Lehen aldia duk.
- Lujan: A, Barrabana! Horrelakoetatik lehen ere maiz irtena zara zu. Askorik merezi gabe, gainera.
- Dultzin: Hmrr! Merezi gabe? Dediola! Behingoz, mereziak aginduko dik, ba!
- Lujan: Tira, Dultzin! (*Lagundu nahian*). Ez izan betikoa. Kontuz-kontuz eseriko zaitut. (*Besotik helduz*).
- Dultzin: Kabendioosss! Ez ukitu, puta veneranda!
- Lujan: Demonioa! Biraoetarako ez zaizu joan indarrrik. Ez zaude hain txarto.
- Dultzin: Hik erabaki behar al duk nola nagoen, puta-virgun-dios?
- Lujan: Benetan hil behar baduzu, ez da erarik egoistena madarikatzea bere aurrera aurkeztu behar duzuna.
- Dultzin: Ni ez nauk azken bihurgunean hitzak aldatzeko bezain zuria. Hori berak ere estimatu behar dik, hain jakintsua bada.
- Lujan: Dultzin! Ez zenuke izan behar bizien eta hilen Jauna desafiatzeko bezain ahoberoa.
- Dultzin: Popatik!
- Lujan: Ba al dakizu nori ari zaren popatik ematen?
- Dultzin: Ba, bai! Eta berari zuzenean esateko gogoia diat.
- Lujan: Ez dut sinesten benetan ari zarenik.
- Dultzin: Nire sinesmena usaimena duk. Ez al duk hil-usain bat hartzen inguruan?
- Lujan: Mofetak ere ibiltzen dira hemendik.
- Dultzin: Ba, hurrengoak neure gainetik pasatu beharko dik.
- Lujan: Suge galanta ere akabatuta nago ni, zure burua datzan iramultzo horretantxe.
- Dultzin: Ekin eta ekin, kristolakristro! Ez duk lortuko ni hemendik jaikitzerik, Santa Teresaren kuleroak aurkezten badizkidak ere.

Isilunea. Lugan apaizgaia hara eta hona, pentsaketan.

- Lugan: Botila bat ardo ekarriko banu?
- Dultzin: Ez zekiat gogorik banukeen.
- Lugan: Ño! Ez zaude ondo orduan!
- Dultzin: Orain konturatu al haiz, sasimiku hori?
- Lugan: (*Belarria beragana apur bat makurtuz*). Dultzin! (*Entzuten zirri-zorro handia*). Zer da zirri-zorro hori?
- Dultzin: Banbuzko gorgoila printzatu zaidala uste diat. Esaik hil-aurre zerri bat, eta eginda!
- Lugan: Hitzak garbi datoz, ba, beren zikinean. Buruak ere ez dirudi horren joana. (*Tartetxo bat*). Dultzin! Arnasa hori ekar daiteke.
- Dultzin: Ez ekin alferrik. Neuk nahi ezik, ez zegok balio duen haizegailurik.
- Lugan: (*Tartetxo bat, pentsaketan*). Baina nik ezin zaitut hiltzen utzi!
- Dultzin: Hasiko al gaituk betiko kaka-lakan? Bizia ez dela norberea, inoren bizia ere badela norberea ...
- Lugan: Orain ez nabil fede kontuekin.
- Dultzin: Orduan utzi bakean!
- Lugan: Zeugatik bai, baina zer egin behar diot neure kontzientziari?
- Dultzin: Txerriari eman! Txerria hiltzen bada, seinale ondo egina zela.
- Lugan: Dultzin! Txerriak ez du behar kontzientziarik.
- Dultzin: Kontzientzia, putalakuntzia! (*Nazka edo mesprexu tonuan*). Paternoster batekin nirekikoa eginda zegoena, zergatik bilatu nauk honaino?
- Lugan: Estimaten zaitudalako. Maite ere bai apur bat, hitz hori zure biraoekin ez dator oso bat baina.
- Dultzin: Sancta portzina! Horixe behar nian! Nire bizia hire sentimenduen ñabardura bat bihurtzea. Zertarako itzularazi nahi nauk bizimodu txakurrera, gero eta txakurrago izateaz beste itxaropen gabe?
- Lugan: Zure setakeriari berehala jaikitzeke arrazoi bat emango banio ere ez?
- Dultzin: Ez hire aho putatik, ez San Pedroren uzki disponibletik ez duk aterako ni jaikitzeke arrazoirik, esekitzen ez banaute Jainkoaren barrabila ronbikoetatik.

Isilunea.

- Lugan: Ondo dago. Botila bat ardo ekarriko dizut, zorionsu hil zaitezzen.
- Dultzin: Ni zorionsu hiltzeko modua beste bat lukek.
- Lugan: Entzun al nezake zein?
- Dultzin: Urdiel! Ba al dakik nor den Urdiel?
- Lugan: Zu osinean itoarazten saiatu zena?
- Dultzin: Eta bera ere putzura erori zena, zerri kabronikoa! Hantxe ito zela jakin! Horixe lukek nire zoriona.
- Lugan: Ba, altxa zaitezke berehala. Urdielen hileta gaur arratsaldeko seietan da.
- Dultzin: Puterandioski!! Ahalguztiaren ronboena baino gehiago duk hori! (*Dultzin kolpera inkorporatzen da bere kamainan. Isilaldia. Halako batean, urrutiko hil-kanpaien soinua entzuten da. Hektor Berliozena*). Egia?
- Lugan: Hil-kanpaiak entzuten diren baino egiago.
- Dultzin: Danda horiek Urdielenak direla sinetsi behar al diat?
- Lugan: Urdiel-Urdielenak!
- Dultzin: Santirun putirun! Ekark arin botila ardoa! Hileta horixe aurreneko eserlekutik ikusi behar diat.
- Lugan: Inoiz elizarik zapaldu ez duzuna, Urdielen hiletan ikusi behar al zaitugu?
- Dultzin: Baita aldareko kopoi gorrian ere, madarikatua! Jendeak esango dik: «Hori da gizona hori, bere torturatzaille nekazina ondratzera etorria! Urrezko barrua behar da gero!».
- Lugan: Zaila da zure barruan urrea imajinatzea!
- Dultzin: Esan dezatela orduan kakazkoa. Hantxe egongo nauk finko – finko, begiak nekrobio eginda.
- Lugan: Azkenean ere, bigundu zarela pentsatuko dute.
- Dultzin: Putalamuntia! Kontrakoa ere pentsatu beharko diate, hilkutxari makilaka hasten naizenean. «Urdiel zerria! Hor al haiz hil-plantak egiten? Klanka, klanka! Irten hadi, kapaz bahaiz!».
- Lugan: Ez eman ideiarik, badaezpada.
- Dultzin: Lasai! Bazekiat nola sarrarazi berriro. (*Mailukada keinuak*). Tabakorririk ba al daukak?
- Lugan: Zeure burua iratzan erretzeko?
- Dultzin: Badaukak ala ez daukak, alua?
- Lugan: Ekarriko dizut, ba!
- Dultzin: Abarka-kordel batzuk ere bai. Hauek ustelduta zeudek. Ez nauk aldare zurira zirtzil-jario aurkeztuko.

Lugan: (*Eskatuaren bila abiatzen da, bere buruarekin berbetan. Beharbada, offean hobeto, ahots erreberberatuan*). Izutzen eta erakartzen ninduen. Haren ahoan, «kabendios» ez zen birao soil bat, Hirutasuna horizontalean ebakitzen ari zen aizto bat baizik, non bokalen gorputza irristada bilakatzen baitzen, “käëbënnndiöësss!!”. Irrikaz inguratzen nintzen. Berak ere nire agerpena atsegin zuela uste dut. Batez ere, golkotik botilatxoa ateratzen nionean.

BIGARREN EKITALDIA

4

Atzera - jauzia. Dultzin luberri lanetan dabilela, apaizgaia hurbiltzen zaio, botila bat eskuan-da. Erakusten dio.

- Dultzin: Hori duk amabirjina polita!
- Lugan: Ezin dut sarri ekarri, e! Gure amak baleki!
- Dultzin: Zuen amak nahikoa egiten dik. Bere isilpeko tragotxoei esker bizi nauk inguru zerritsu honetan. (*Edaten du*). Edan heuk ere tragotxo bat.
- Lugan: Gero amak usaina hartzeko?
- Dultzin: Gozoa! (*Ardoa edanez*). Egunen batean apaiz alua izango haiz, baina mutiko ona dirudik.
- Lugan: Zeu ere ez zara gizon modu txarra, horren biraotia ez bazina.
- Dultzin: Putalandiola! Berba soil batzuek hainbeste kalte egiten al diate?
- Lugan: Belarri otzanei bai. Jainkoaren izenari ere bai.
- Dultzin: Nire biraoek kalte egiten badiote, ez zeukak larru sendo-sendoa Jainko horrek.
- Lugan: Badela sinesten al duzu, ba?
- Dultzin: Ez zekiat. Ahalegin guztia egiten duela zirudik ez dagoela pentsarazten.
- Lugan: Eta badela gertatuko balitz?
- Dultzin: O! Ni ez naik beldurtzen Jainkoak edo Deabruak, bitarteko zantarreria honek baizik.
- Lugan: Zeu ere ez baitzara piztia gozoa, zantarraldiak ematen dizunean.
- Dultzin: Et, et, et, putissima caeli! Nik sekula ez diat inor hutsetik mehatxatu.
- Lugan: Liskarrak nonahi sortu bakarrik.
- Dultzin: Ez izorratuko ez banindute, alua! Ba al dakik, tabernara sartzean, zer egiten didaten lehenen?
- Lugan: Trago batera gonbidatu.
- Dultzin: Eta gero makila gorde! Makila hau gabe zer nauk?
- Lugan: Ez dakit. Herren inutil bat?
- Dultzin: Guztien burla-zaku. Heuk ez al huen ikusi nolako kakatzen sartu ninduten buruz behera, Urdiel txulokume hori buru zela?
- Lugan: Berdetu egiten zara-ta!

Lugan: Zer nahi duk, madarikatua? Uzkie eskaintzea, teleskopiotzat erabil dezaten? Beharbada, ez diat arimarik izango, zuen parroko ahohandi horrek zabaldu duen moduan, baina gorputz hau ere erdi-minetan jaioa duk, e! Ez pentsa Jesukristok bakarrik daukanik mina sentitzeko ahalmena.

Lugan: Hark herrenak eta mainguak onetsi zituen.

Dultzin: Onetsi eta bertan utzi.

Lugan: Eta egiak esan! Baina, horretarako, fede apur bat behar da.

Dultzin: Fedea edukiz gero, dena gezurra izanda ere berdin duk.

Lugan: Hori al da Sasimaltzako dama morearekin praktikatzen duzun doktrina?

Dultzin: To! Dama horrek izen prestua zeukak, e! Lukina Bustieta. Eta senar jator bat. Sandalio Lorrinbaso. Neure lagun handia.

Lugan: Batez ere, itsasotik denean, ezta?

Dultzin: Hara, apaizgai xaloa! Hi ere sartu al haiz kontakatiluen kofradian?

Lugan: Ikusita ere banago zerbait.

Lugan: Virgo putens! Ikusita? Zer ikusita?

Lugan: Dultzin! Klandestinoago ibiltzen ikasi behar duzu.

Lugan: Tutis putis! Urdiel baino gaiztoago hator hi.

Isilunea.

HIRUGARREN EKITALDIA

5

Berriro Zelabordan. Zurrutari ekin Dultzinek, zurru-zurru.

- Dultzin: Santa Zakilia! Hau bazihoak! Estimutzen diat borondatea, baina zergatik ekartzen didak?
- Lugan: Pozten nauelako behin edo behin zu alai ikusteak.
- Dultzin: A! Pobrea, zeruko lorea! Ni alai ikusteak pozten, e?
- Lugan: Baita zu hizketan entzuteak ere.
- Dultzin: Gordinkeriak eta? Ondo zegok, ardo truke bada.
- Lugan: Bihar zail izango dut ekartzea. Etxean igartzeko moduraino estutzen banauzu, zeuk ikusi gero tabakorria eta beste isil-jeneroak nondik iritsiko zaizkizun.
- Dultzin: Hauxe duk benetan behartsua izatea! Mutiko zapo baten mende egon beharra!
- Lugan: Ez al duzu esaten inoren dependentzia baino aberatsago dela haizearen askatasuna?
- Dultzin: Kabenla putinskia! Azken tragoa geratzen duk hemen. Hurrengoan ekark botila argiagoa, non goazen jakiteko.
- Lugan: Utzi botilari! Beste kontu batzuek ari ginen. Nik hainbat jenderi entzun izan diot ...
- Dultzin: Jendea jendaila duk. Onenak zintzilik behar likek.

Isilunea.

- Lugan: Zintzilik, zeure mihi zikinetik?
- Dultzin: Aaa, neure konfesore kaikua! Hik nire mihi zikinetik gauza ezkutu samarrak entzun nahi dituk, eztuk?
- Lugan: Ez nahitaez. Nik gauza horiek banekizkien seminariora joan aurretik.
- Dultzin: Santirum putirum! Kabroi osoa izateko, erdi bat sobratzen zaik.
- Lugan: Zuk ez al zenuen ikasi «medikuka» jolasten?
- Dultzin: Zer jolas modu duk hori?
- Lugan: Neskatoa etzaten da gaixorik, eta mutikoak araketa egiten dio, medikua bailitzan.
- Dultzin: Santa Zakilia! Hau tamala eskolara ez ibilia!
- Lugan: Dultzaina jotzen ikasi zenuen.
- Dultzin: Ikasi nian, bai. Santa Dultzinia!
- Lugan: Aspaldian ez duzu jo.

Dultzin: Santa Buztanika! Urdielem eta txulo-banda horrek putzura jaurti ninduten batean, nire tresna zintzoa hantxe galdu zuan betiko. Orain txorien kantua txistukatuz alaitzen nauk.

Lugan: Banoa! Ea botilatxo bat ekartzea lortzen dudan.

LAUGARREN EKITALDIA

6

Lau bat ordu igaro dira Lugan apaizgaia Zelaborda utzi eta ardoa eta tabakorriaren bila abiatu denetik. Egun argitua aurrera doa dagoeneko, eta Lugan bueltan da, mandatuarekin.

Lugan: (*Kanpotik*). Dultzin! Hau bai hau! Glu-glu-glu (*kantuz*), glu-glu-glu! Hemen datoz globulu beltzak, zuri-gorriak eta moreak. Tabakorri miragarria ere badator, zenbat eta gorputz makalagoan, eztul indartsuagoak ateratzeko grazia daukana. Ea tximinia zikin hori behingoz zarratzen edo zartatzen den.

Barrura sartzen da.

Lugan: Dultzin! Mutu ala? Birao bat ere ez? Ene ama! (*Aurkitzen du*). Dultzin! Botila hau hustu arte ezin duzu hori egin. Kakazaharra! Zaharra, zaharra, zaharra! Hau hilda dago! Dultzin! Zelan eragin didazu hain bidaiara luzea alferrik, osinean itotzeaz eginda zenuena? Orain zer egin behar dut?

Alde egiten du lasterka.

7

Lugan etxera iritsi arnasestuka.

Lugan: Ama! Dultzin Herren hilda agertu da.
Ama: Ez duk lehenengoa, ez laugarrena, gero bizirik agertzen dena.
Lugan: Oraingoan ez da agertuko.
Ama: Orain arte beti agertu duk.
Lugan: Ama! Egia da!
Ama: Heuk hil al duk?
Lugan: Hilda aurkitu dut.
Ama: Non?
Lugan: Oizko Zelabordan.
Ama: Nola henkien herren bat hemendik Oizeraino joana zela?
Lugan: Susmoa neukan, eta asmatu egin dut.
Ama: Ez haiz gaiztakeriaren batean tarteko izango, eztuk?
Lugan: Zeugandik horixe entzutea behar nuen!
Ama: Abisaiok bere ugazabari, osaba Martziali. Eta abadeari eta sakristauari, kanpai batzuk, behintzat, jo ditzaten.

Lugan: Urdielen hiletara joateko asmoa zeukan.
Ama: Dultzin Herren elizara? Eta Urdielen hiletara?
Lugan: Horixe esan du.
Ama: Hilda ere berba egiten al zian?
Lugan: Bizirik aurkitu dut. Gero hil da.
Ama: Zer misterio kontatzen diharduk? Katramila lupuren bat ezkututzen ez ahal haiz ibiliko!
Lugan: Ama! Zelaborda hemendik urrun dago. Gizon bat hilda dago han. Arratsaldean, Urdielen hiletan, meza-laguntzaile egin behar dut. Ez nazazu gehiago nahasi.
Ama: Bazkaltzeko astirik ez al duk hartu behar?
Lugan: Bazkariak itxarongo du.
Ama: Taloarteko bat prestatuko diat urdaiarekin.
Lugan: Gura duzuna, baina arin!

BOSGARREN EKITALDIA

8

Urdielen hileta-elizkizuna bukatu da. Apaizaren azken hitzak elizara hurbildu direnei. Apaizgaia haren ondoan akolito lanetan.

Apaiza: Requiem aeternam dona eis, Domine. Kristau maiteok! Ez behar tamalgarri bat bide, gaur Fulgentzio Bargondia jaunaren agurrak batu gaitu. «Urdiel»-en izen-abizenak eurok. Bada gero! Egiazko izena jakin dadin, hil egin behar. Eta gaur Fulgentzio jaunaren hileta dugun moduan, bihar Julian Arrillagarena izango da, ordu berean. Julian Arrillaga edo, guztien ezagutzan, «Dultzin Herren». (*Hisopoari eragin eta azken ihintzadura egin bitartean*). Goian beude biak. Zoazte Jaunaren bakean!

Hileta amaitu da. Apaizak hisopoa akolitoari eman eta uneari dagokion solemnitaez erretiratzan da.

Lugan: (*Hisopoa jaso eta irteteko bidean, ahopean publikoari*). Apaiz katamalo honek Fulgentziori erantsi dion «jauna» zergatik omititu du Julianen kasuan?

9

Eszena hau guztia, printzipioz, ikusi gabe entzuteko pentsatua da. Bi gizonen borroka biolentoa entzun behar da. Urdielek Dultzin Herren osinera bota nahi du. Azkenean, biak uretara, eta han jarraitzen borroka purrustatsuak. Nola garatu –eta agian nola ikusarazi ere–, toki bakoitzean erabaki beharko, eszenatoki bakoitzaren eta hango baliabide errealean arabera. Gutxi gorabehera, honelako zerbait entzun behar da:

Ahotsak: Brrruuuajjj...! Puttttadiola, zerri kabroooiia...! Ito hadi hortxe! ... Aaafffjjjakauuut...! Akatu egingo hauutt...! Aiiidiooojjjputtiiaarrfff...!

Biren arteko ulu zarratuak, minuak, birao mortalak, tragediaren usaina airean zabaltzen dutenak. Apaizgaia zaraten jatorrirantz, kontuz-kontuz, ilunaren babesean. Gero eta hurbilago entzuten borrokalarien orroak. Kontu handiz, gepardo

baten moduan hasten da arrastatzen Lugan. Halako batean, braust mozten da uluen eta biraoen kalapita.

Lugan: (*Bihotza saltoka*). Hemen norbaitek baten bat akabatu du.

Jakin-minak beldurrak baino gehiago tiratuta, gune fatidikorantz hurbiltzen jarraitzen du. Halako batean, pisu handi bat uretara erortzearen soinua entzuten da, eta urpekoak bezalako purrustadak hasten dira. Borroka-ahotsen bortitzaldi baten ondoren, birao glu-glukari batek bietako bata bereizarazten du. Luganek igartzen du Dultzin dela.

Lugan: Baten batek herren gizajoa osinera jaurti eta hanka egin du.

Pausoa azkartu eta osinaren hegalaria heltzen da.

12

Luganek, inguruko haga bat hartu, osinaren ertzera hurbildu eta handik irten nahian ari den Dultzini luzatzen dio.

Lugan: Dultzin! Heldu honi!

Dultzin: Hmmmrrrggg!

Lugan: Lasaitu! Egon apur baten horrelaxe, hagari helduta. Hartu arnasa. Geldi hor! Geldi!! Bai? Oraintxe!

Dultzin: Pssllljjrrr!!

Lugan: Orain heldu ertzari.

Dultzin: Tiraik, sandiokristo!!

Lugan: Ona! Hitza ez zaizu joan. Katuen zazpigarrena gainditu duzu.

Tiraka-tiraka, Dultzin irten da hegalaria. Lurrean dardar, arnasa ozta bueltatuz, ezin da etzanda egon, ezin da zutitu. Beratuta ez balego, infernuko ipizkia lirudike.

Lugan: Eskerrak igeri bazenekien!

Dultzin: Beharko, putaniskia! Ba al dakik zenbat bider jaurti nauten uretara?

Lugan: Gaurkoa erortzea izan dela dirudi.

Dultzin: Erortzea? Madarikatua! Berak bota naik!

Lugan: Eta non dago?

Dultzin: Putzuan bera ere!

Lugan: Aibadios!
Dultzin: Neuk heltzeko moduan jarri baita, ergel astonarrua! Goazen hemendik!
Lugan: Bera hor utzita?
Dultzin: Itoko ahal duk zerri hori, izena ere Urdiel!
Lugan: «Fulgentzio zurgina».
Dultzin: (*Alde egiteko keinua eginez*). Fulgentzio Bargundia, Urdiel Urdelundia!
Lugan: Geldi! Nora zoaz?
Dultzin: Ahalik urrunen. Oizeraino, gutxienez.
Lugan: Dultzin! Zoratuta al zaude?
Dultzin: Makila! Non zegok nire makila? Atera nire makila uretatik.
Lugan: Tori haga. Makila bihar topatuko dugu. Orain etzan zaitez. Horrela ezin zara inora joan.
Dultzin: Utzi baketan! Eta ez segi niri, putadiola, bertan hiltzeko!
Lugan: Segi infernuraino! Hantxe lehortuko zaituzte.

Putzura itzultzen da Lugan. Urdielen purrustadak ez dira agortu, bai ahuldu. Dultzinen makila topatzen du.

Lugan: (*Urruntzen ari denari deika*). Dultzin! Makila hemen dago.
Dultzin: Sartu popatik burruntzian karniboro horri!
Lugan: Orduan zertarako eskatu didazu?
Dultzin: Oraintxe ez al diat esan?

Luganek jaramonik ez, eta makila eskuratzen dio Dultzini. Honek ez du ukatzen. Laguntzen saiatzen denean, hala ere, burua erdibitzeko moduko makilada jaurtitzen dio herrenak, mugimenduak oreka galarazi eta jausten dela. Nola edo hala jaikirik, berezko herrenaz gainera daraman balantzadaz, lepamoztutako Drakula bat bezala ihes egiten du.

Lugan: (*Distantziara ere jarraituz, deika, lagundu nahian*). Dultzin!
Dultzin!

Deika jarraitzeari utzi eta gelditu egiten da Lugan. Osinera itzuli ala ez dudan egon ondoren, etxerako bidea hartzen du.

SEIGARREN EKITALDIA

13.

*Zelaborda. Iratze-azpian datza Dultzin Herrenaren gorpua.
Lugan iristen da korrika.*

- Lugan: Dultzin! Hemen naiz berriro, Urdielen hiletatik. Ez zait gustatzen hilak ikusterik, baina Urdielen hilkutxa zabaldu dutenean, ondo begiratu diot. Ehorzten ere ikusi dut. Erabat hilda joan da. Izan zenezake lasai betiko atsedena, han ere elkar ikusi beharra gertatzen ez bada.
- Dultzin: Putadiola! Horixe behar genikek!
- Lugan: Dultzin! Bizirik al zaude?
- Dultzin: Oraindik ez diat belerik sumatu arimaren bila.
- Lugan: Lehen zergatik ez didazu erantzun? Ez arnasarik, ez pultsurik ez zenuen, barren!
- Dultzin: Lo egongo ninduan.
- Lugan: Deiadar guztiak egin dizkizut.
- Dultzin: Okerreko belarrarian ibiliko hintzen.
- Lugan: Oraintxe agerian daukazun horretan!
- Dultzin: Hortik ez diat entzuten.
- Lugan: Bestetik ere ekin diot.
- Dultzin: Bestea alferra duk.
- Lugan: Astin - astin egin zaitut, txakurrak lumazko panpina bezala.
- Dultzin: Horrenbeste? Hilda egon ote nauk, ba?
- Lugan: Hiltzat utzi zaitut. Gure amak esan du baina!
- Dultzin: Zer esan dik?
- Lugan: Ez litzatekeela lehen aldia, uste guztien aurka bizirik agertzen zarena.
- Dultzin: Zuen ama argia duk. Esaiok asmatu duela berriz ere.
- Lugan: Esan, nola? Nik hilda zaudela zabaldu dut!
- Dultzin: Txarra al duk hori gezurra izatea?
- Lugan: Zure hileta biharko iragarrita dago!
- Dultzin: Putissimam semper gloriam! Prestatu egin beharko nauk, orduan.
- Lugan: Prestatu nola?
- Dultzin: Benetan hilda, alua! Ez duzue hilkutxa hutsik eramango.
- Lugan: Holakorik! Hau mundu modua!
- Dultzin: Ez arduratu horregatik. Gauzak ganoraz egingo ditiagu.
- Lugan: Zer da ganoraz? Hiltzen saiatu?

Dultzin: Ez diat uste borda honetatik neurez irtengo naizenik.
Lugan: Bai irtengo zara! Berpizten baldin badakizu, zergatik ez zara bizitzen jarraitzeko gauza izango?
Dultzin: Ez zaidak interesatzen!
Lugan: Bertora ekarriko dizut bizigarria.
Dultzin: Txarto nagola, sandiola! Herio-muga hainbeste bider zapaldu duenak badik sena, igartzeko noiz den azkena.

Isilunea.

14

Halako batean, lehen ekarritako botila topatzen du Luganek .

Lugan: Ardoa hemen dago. Hau edan gabe ezin zara joan!
Dultzin: Kristolorboño! Hori bai, paparra zulatuta bada ere.
Lugan: Tabakorria ere ekarri dut.
Dultzin: Hori ez zaidak sartuko.
Lugan: Ez da kuarteroia gero! Generrik inoiz erre al duzu?
Dultzin: Erre nik, jenero guztiak.
Lugan: Ez, ez! Gener. Generra. Oraintxe agertu den marka berri bat. Gordinik ere a zer usaina daukan!
Dultzin: Hobe zurrutetik hasi. Lastima lukek, tabakorrian itota, ardotxo hori edan gabe uztea.
Lugan: Botilatik edan beharko duzu.
Dultzin: Edango ez diat, ba, zantar mater de genibus! Bularra hiru egunera galdurik, biberioia irentsi eta botilatik edaten nian ahuntz-esnea, txurku-txurku. Sehaskatik kabroi!
Lugan: Bularra «galdu» esan duzu?
Dultzin: Ama galdu. Non ote duk bera!
Lugan: Aita ere orduan ...
Dultzin: Hobe bera joan izan balitz, kankailu kirtena! Gure natura jakintsuari gauzak erarik okerreanean egitea gustatzen zaiok.
Lugan: Esertita ipiniko zaitut. Horrela ezin duzu edan.
Dultzin: Eseri? Hum! Ai! Ez! (*Eztul egin nahi eta ezin*). Jasoidak burua apur bat, ira-multzo batekin. Ai, ai! Puta Doniene! Gehiegi ez!
Lugan: Eutsiko al diozu botilari?
Dultzin: Botilari eusteko ez banauk, puska ezak neure buruan eta finis putissima!
Lugan: Gozo al dago?

Dultzin: Hjjjj! (*Eztul-gurak*). Ez dik sartu nahi. Hjjrrrr! Kabenla Rusia!
Erre ere bai! Sufrea bota al diok?
Lugan: Petrolio apur bat, biguntzeko. Astiro-astiro. Utzi berari bidea
egiten. Apur bat kostatu arren, efektua berdin egingo dizu.
Dultzin: Hala bedi! Hiltzeko, honenbeste katramila ez likek behar.
Lugan: Badoa, badoa! Majo sartzen da.
Dultzin: Bazihoak, bai. Mrrrrnnn! Hmrrrr! Azkenean lortu behar diat
miraria, txakur bizi eta gizon hil. Bibala Pantrusia!

Eta botilakoari ekiten dio gogoz, arnasa larritzeraino.

15

*Tartetxo bat behar du Dultzinek arnasa berriro orekatzeko.
Lugan du ondoan lagun.*

Lugan: Txakur-bizitza ez al da izan zeuk aukeratua? Hemen harrikada,
han ogi-koskorra, baina beti alderrai.
Dultzin: Hi ere horretan? Batzuetan, ogia mingarriago duk harria
baino. Seminarioan ere gertatuko zaizue. Zintzoa bahaiz,
zintzoago izan behar. Jainkoa infinitua denez gero, emaiok
hari hartu ahal duen guztia.
Lugan: Hainbeste ere ez, Dultzin! Ahal dena!
Dultzin: Laster jakingo diagu hori ere. (*Isilunea*). Aizak, apaizkume
gogaikarri! Utziko al didak, behingoz, astiz eta gustura
hiltzen?
Lugan: Ez gauza bat esan gabe, zeure erara.
Dultzin: Nire erara?
Lugan: Ba, bai! Zu hiltzeak ez dit penarik emango.
Dultzin: Hostifero luziferno! Zer entzun behar dik nire belarri alferrak?
Lugan: Gure amak dio zuk, garai batean, koplak bihurri batzuk
kantatzen zenituela.
Dultzin: Hmrr!! Bihurriak?
Lugan: Botila bat pattar ekarriko dizut, koplak haiexek kantatzeagatik.
Dultzin: A, kalapito bedeinkatua! Pattarra edaten badut, ezingo dituk
entzun.
Lugan: Orduan bi botila ardo.
Dultzin: Bat eta erdirekin nahikoa diat. Zer entzun nahi duk?
Lugan: Koplak haiexek!
Dultzin: San Antonioren zezenak! Hik ba al dakik nolakoak ziren ni
morroi egon naizen etxeak?
Lugan: Ez dakit. Etxeak, etxaldeak ...

- Dultzin: Etxe ... «galtzaileak»! Ez al duk entzun gerraren berri? Zuen etxean jakingo diate zerbait.
- Lugan: Zuk zer ematen zenion etxe «galtzaile» bati?
- Dultzin: Bere historia dohakabea entzuteko atsegina.
- Lugan: Txerri-afarrietan? Gabonetan?
- Dultzin: Umore-giroa sortzen zen okasioetan. Pentsa nolako beldurra egongo zen, katu bat sukaldera sartzen bazen, isiltzeko agintzen zidaaten.
- Lugan: Ba, hasi! Ni ez naiz katu.
- Dultzin: (*Tragotxo bat*). Hmmrrr! Jrrrsss! Eztarri zikin hau!

(Mutilak grabagailua jartzen du disimuluan, publikoari intentzioa erakutsiz).

ZAZPIGARREN EKITALDIA

16

*Sorta hau eta hurrengoak nola deklamatu, errezitatu, kantatu ...
erabaki egin beharko. Nolanahi dela, ahots apurtu samarra lortzen
saiatu behar da.*

Gerraz eta gerra ostez
bete gaitue hilotzez.
Gerran armaz, orain gosez.

«Ez daukat garirik, jauna».
«Erosi falta dozuna».
Hau bai dela garizuma!

«Zelan erosi, jauna, non
ez badot hurrei zer emon?».
«Egin zor eta hor konpon!».

Aita preso, gosez haurrak.
Zelan mendia edurrak
estaldu gaitu bildurrak.

Abadeak dino orroz:
«Makurtu buruok behingoz!
Jaunaren nahipean gagoz».

Putzak nora, hautsak hara.
Jaunaren nahia hau bada
fortunadunak geu gara.

Lugan: Ño! Ez daude gaizki.

Dultzin: Norbere suntsipenaren kondaira beti duk zirrargarri.

Lugan: Eta kondaira hori ez gustatzeko moduko etxeetan? Apaizen
morroi ere ibilia baitzara.

- Dultzin: Eta hantxe bihurtu biraoti! Behin parroko batek kargu hartu zidaan: «*Julian, Julian! Aho zikin hori erreko ahal zaik infernuan!*». «*Berorrek biltzen dituen oilaskoak bezala?*». Gehiago ez zuan niregana arrimatu, astoa amildegira baino gehiago.
- Lugan: Apaizak ere ez baitira denak berdinak.
- Dultzin: Ez dituk izango, baina ahalegintzen dituk izaten.
- Lugan: Etxe «irabazleetan» ere ibilia zara.
- Dultzin: Beharko, sanputarko! Nire makilak ezin zian bereizi nolako atepak ziren, zabalik ala itxita zeuden baizik.
- Lugan: Haietan ezingo zenuen edozer kantatu.
- Dultzin: Dibertsiozkoak bakarrik. Katuenak, adibidez:

Gure etxean lau katu
 beste bat agertu jaku.
 Danen arte ezin dabe
 sagutxo bat harrapatu.

Ilun hezea harpean
 aran gorria atean.
 Txoria gordeta dago
 Martzialen prakapean.

Katuok! Baina zer da hau
 hor miau eta han marrau?
 Egin lo, ze sagutxoak
 gosetxean urtengo dau.

- Lugan: Barrabana! Arrosarioaren gainerako, misterio-sorta freskoa horixe!
- Dultzin: Urdielen etxean ere egona nauk, pentsa!
- Lugan: Berak ere bazuen kantari fama.
- Dultzin: Bai, arraioa! Harentzat beste batzuk nitian. «Pobre biziosoenak».

Pobreak sine gupida
 esplotatu behar dira
 mendekaturik egon daitezen
 aberastuko balira.

Egunero zigor bera
ahal bada, neurri doblera
ausartzearren ezin dabena
setati itxarotera.

Pobreen soka dingiliz
aberatsok begi liliz.
Halan begitzen deuskue gero
gorrotoz eta inbidiz.

Segi, pobreok, sen oroz
noizbait aberastu gogoz.
Guztia ez da kimera bat ze
aberatsak hemen gagoz!

18

Isilunearen ondoren.

- Lugan: Eta Urdiel pozik.
Dultzin: Gustura entzuten zitian, bai, zerriki alaenak.
Lugan: Eta zu zerriki bat elikatzen.
Dultzin: Jakina!
Lugan: Hori ez al da faltsukeria?
Dultzin: Zer egin behar nian? Herrenen iraultza deklaratu?
Lugan: Zerbait egin zenuen, Urdielen morroi izatetik haren burlagai bihurtzeko.
Dultzin: Puta diola, zerri kabrola! Alde egin nioan. Eta haren urguiluak ez zidaan barkatu.
Lugan: Zeu ere kalamitatea izan! Bada gero jenioa ondo dagoen leku batean ezin kokatu!
Dultzin: Puta koskoila! Leku on bat ez daukanak, txar asko probatu behar ditik. Eta azkenean, zer? Bera joan nire aurretik! Alu guztiak akabatzerik ez duk izango, baina batzuk aurretik joaten ikusteak merezi dik miseria zerbait. (*Eztulak ematen dio*).
Lugan: Egizu tragotxo bat, ito behar duzu eta.
Dultzin: Ezin diat. (*Eztulak aurrera*).
Lugan: Etzan zaitez. (*Lagunduz*). Hortxe. Horrelaxe.

Eztula gogorretik bigunerantz, amaitzen bezala. Lugan etzaten laguntzen ari zaiola, begiak itxi eta burua albo batera harri moduan erortzen zaio Dultzini, eskuetatik irristatu zaion botila lurrera erori bitartean. Hilotz betirako, iratzearen gainean uzten du Luganek, Zelabordara iritsitako azkenengoan topatu zuen moduan. Hari begira geratzen da une batez. Gero, okadari ahal bezala eutsiz, buelta eman eta alde egiten du Zelabordatik, atzera begiratu gabe.

ZORTZIGARREN EKITALDIA

20

Seminarioan

- Lugan: Egun on, aita.
Errektorea: Egun on, seme. Eseri patxadan.
Lugan: Eskerrik asko.
Errektorea: Zertarako deitu dizudan jakin nahiko duzu.
Lugan: Bai, noski! Zerbait gertatu al da?
Errektorea: Gertatu zen.
Lugan: Hmm?
Errektorea: Orain lau urte, zuen auzoan. Gertaera larri bat. (*Zertaz ari den ulertu ez Lugan apaizgaiak*). Zeu tarteko izan zinena. (*Luganek harridura-keinuak*). Bata ozta-ozta salbatu, eta bestea ...
Lugan: A! Oraintxe konturatu naiz. Bestea ito egin zen.
Errektorea: Salbatu zena nola salbatu zen?
Lugan: Hura ere laster hil zen gizajoa.
Errektorea: Baina ez itota.
Lugan: Ez.
Errektorea: Zeuk lagundu zenion osinetik irteten.
Lugan: Gero ere lagundu nahi izan nion, baina ez zuen onartu. Azken tristea, bizitza bezalakoa.
Errektorea: Itotzen ari zenari zergatik ez zenion lagundu?
Lugan: Dena ezin nuen egin.
Errektorea: Saiatu ere ez?
Lugan: Saiatu nintzen, eta lortu nuen herrena salbatzea. Hain zuzen, besteak burututako erasotik. Ez zen lehen aldia, herren indefentso hartaz herio punturaino abusatzen zuena.
Errektorea: Sinesten dut, baina orain ez nabil arrazoi horietaz.
Lugan: (*Ausardiaz eta interpelazioz bezala*). Garbi esatea nahi al du berorrek?
Errektorea: Horretarako deitu dizut.
Lugan: Ba, herritar gehienek ez zuten bat ere penarik hartu.
Errektorea: Horra jo nahi nuen! Zu ez zara edozein herritar. Jainkoaren ordezkari izatera doan batentzat, arima guztiak dira berdinak heriotzaren aurrean. (*Isiltasuna*). Ulertzen?
Lugan: Zer ulertu behar dut?

- Errektorea: Beharrezko laguntza bat omititu zenuela. Zuzenbide kanonikoan ondo ikasia izango duzunez, hori zehar-hilketa da.
- Lugan: Herren behartsu bati itotzen utzi behar al nion, jauntxo doilor bat salbatzeko?
- Errektorea: Biak salbatzen saia zintezkeen.
- Lugan: Bat ere ez salbatzeko?
- Errektorea: «Saiatu» esan dut.
- Lugan: Ulertu dut. Hilketa bat burutu nuen. Zenbat hilketa burutzen dugu egunero, nik, berorrek, edonork?
- Errektorea: Nik hilketak burutu? Edonork?
- Lugan: Zeharka, berorrek dioenez. Munduan, umeak nonahi ari dira gosez hiltzen. Zergatik ez ditugu haiek sorosten, hain gaixotasun sendagarria izanik?
- Errektorea: Zu in situ zeunden!
- Lugan: Afrikako umea ere in situ egongo da, berori hara badoa.
- Errektorea: Gauza bat da non zauden eta beste bat norekin zauden.
- Lugan: Erantzukizun morala distantziaren mende badago, zenbat metrotan dago exentzia? Bat? Mila? Milioi bat?
- Errektorea: Hara, seme! Dialektika antzuak utzita, izan zaitez menkorrago, Jaunaren aldarean toki bat nahi baduzu.
- Lugan: Argitasun txiki bat besterik ez dut nahi. Demagun gure diktadorea itotzen ari dela bere osin inpenetrable askotariko batean. Laguntza omititzea ...
- Errektorea: Shss! Adibide hori ez aipatu hemen! Eta kalifikazioa gutxiago.
- Lugan: Zergatik ez bata, eta zergatik ez bestea? Hark ere izan behar du arima bat!
- Errektorea: Ezetz esan dizut! Aldatu adibidea.
- Lugan: Orduan, kasua bera ipiniko dut. Urdiel erregimenaren besoa zen herritar guztientzat. Bere boterean hanpaturik, ez zeukan mugarik, nahi beste zapalkuntza burutzeko. Dultzin. Herrenen kasuan, zapaltzea errazegia baitzen, txotxongilotzat hartu zuen, bere prepotentzia exhibitzeko. Behingoz, bere eraso zantar batean merezita harrapatua izatetik laguntzea omititu nuelako, hiltzaile izan behar al dut?
- Errektorea: Zuzenekoa ez, baina zeharkakoa bai.
- Lugan: Ondo dago, aita. Argituko dut auzia Jainkoarekin apartean.
- Errektorea: Seme! Gogoratzen dizut Jainkoaren gogoa, zuretzat, hemen, seminarioko nagusiak garela. Erretira zaitezke.
- Lugan: Erretiratuko naiz! Baina etxera. Aurkituko dut modua Jainkoaren gogoa era zentzuzkoagoan ulertzeko.

BEDERATZIGARREN EKITALDIA

21

Hamarkadak igaro dira. Lujan, lo. Amesgaitz bat. Kanpotik, gero eta hurbilago, dultzaina baten soinu sarkorra entzuten da. Dultzin da jotzailea. Herrenka sartzen da, makila besotik dingiliz. Lugani erreparatzen dio eta:

- Dultzin: Putalamutu madarikatu! Seminario pitokario horrek aingerutik baino alu-kumetik gehiago ematen duela uste diat.
- Lujan: Ene ama! Dultzin! Zenbatgarren infernutik zatoz oraingoan? (*Dultzinek erantzun ez, isilune bat sortzen da*). Seminarioa? Dultzin! Zahartu ere egin naiz barren!
- Dultzin: Santa virgo putens! Zer zoro-belar edo zapo-salda edan duk oherakoan?
- Lujan: Herren maite! Mundu bat atzerago zabilta.
- Dultzin: Putadiola! Urdiel ere bizi duk orduan? Kabenla mater veneris!
- Lujan: Birao berriak asmatu beharko dituzu. Horiek inork ez ditu ulertzen orain.
- Dultzin: (*Publikoari*). Biraoak ez ulertzeraino aldatu al da mundua?
- Lujan: (*Isilunea*). Begira, Dultzin! Joan zen astean, familiako hileta batean, zortzi urteko biloba neskatxoa neukan ondoan, elizan. Komunioa iristen da, apaizak sagrarioa irekitzen du (*ekintzaren argazkia edo marrazkia*), eta kopoia agertzean, neskatxoak galdetzen dit: «Aitita! Zer jostailu atera du magoak mikrouhinetik?».
- Dultzin: Mikro ... zer? Kabenla potrusia! Zertan zegok diferentzia!

Lujan itzartzen da astindu batean. Jaikitzen da ohetik. Konturatzen da publikoaz eta:

- Lujan: O! Zer mende da gaur? (*Zalantzan, buruari eraginka*). Berdin dio. Egun on!

ARGIAK ETA AZKEN OIHALA